

ERREKURTSOAK / RECURSOS

Eranskina Anexo	NOIZ APLIKATZEN DEN	CUÁNDO SE APLICA	DESKRIBAPENA DESCRIPCIÓN
1	Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua araberan, edozein udal egintzari buruzko ebazpen edo erabakien kasuan aplikatu ahalko dira, hirigintza-planeamenduko tresnen gaineko aurkaratzeetan izan ezik.	De conformidad con el artículo 8 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa (LJCA). Procede en las resoluciones o acuerdos municipales cuando tengan por objeto cualquier acto del Ayuntamiento, excluidas las impugnaciones de cualquier clase de instrumentos de planeamiento urbanístico.	<p>Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, epaitegiaren aurrean; aukerako berraztertze-errekurtsoa</p> <p>Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado, con Recurso de Reposición potestativo.</p>
2	Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1 artikulua araberan, Administrazioarekiko auzietarako epaitegiei ez dagozkien gaiei buruzko ebazpen edo erabakien kasuan aplikatu ahalko dira (aurreko paragrafoan aipatutako 8. artikulua araberan, hirigintza-planeamenduko tresnen gaineko aurkaratzeak lirateke epaitegiei dagozkienak).	De conformidad con el artículo 10, apartado 1, letras a) y b) de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, procede en las resoluciones o acuerdos municipales cuando tengan por objeto asuntos cuyo conocimiento no esté atribuido a los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de acuerdo con el artículo 8 al que se refiere el apartado anterior, esto es, las impugnaciones de cualquier clase de instrumentos de planeamiento.	<p>Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Salaren aurrean; aukerako berraztertze-errekurtsoa.</p> <p>Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala, con Recurso de Reposición potestativo.</p>

Eranskina Anexo	NOIZ APLIKATZEN DEN	CUÁNDO SE APLICA	DESKRIBAPENA DESCRIPCIÓN
3	<p>Horretara joko da administratuak aurretiaz jarritako berraztertze-errekurtsoa ebatzi ostean eta, betiere, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 8. artikuluko gaiak tarteko direnean. Aintzat hartu beharra dago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 115.2 artikuluko xedatutakoa: errekurtso-jartzaileak errekurtsoari okerreko kalifikazioa jartzea, edo kalifikaziorik ez jartzea, ez da eragozpen izango errekurtsoa izapidetzeko, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera». Hori dela eta, gure iritziz, herritarraren idatzitik ondorioztatzen bada berau berraztertze-errekurtsoa dela, horri buruzko ebazpena edo irizpena onesterakoan aipatu egin beharko litzateke berraztertze-errekurtsoa dela, jakinarazpen eredu egokia erabiltzeko eta interesduna zuzen-zuzenean bideratzeko Administrazioarekiko auzien jurisdikziora.</p>	<p>Se utilizará una vez se haya resuelto el recurso de reposición que previamente ha interpuesto el administrado y cuando verse sobre las materias señaladas en el artículo 8 de la LJCA. A este respecto debe tenerse en cuenta el artículo 115.2 de la Ley 39/2015, de 2 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas: “el error o la ausencia de calificación del recurso por parte del recurrente no será obstáculo para su tramitación, siempre que se deduzca su verdadero carácter.” Por ello, en nuestra opinión, cuando de un escrito de un ciudadano se deduzca que el mismo constituye un recurso de reposición, al aprobar la resolución o el dictamen sobre el mismo, se debería hacer mención a su carácter de recurso de reposición para, de esta manera, utilizar el modelo de notificación apropiado y dirigir al interesado directamente a la jurisdicción contencioso-administrativa.</p>	<p>Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, epaitegiaren aurrean.</p> <p>Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado.</p>

Eranskina Anexo	NOIZ APLIKATZEN DEN	CUÁNDO SE APLICA	DESKRIBAPENA DESCRIPCIÓN
4	<p>Aurreko kasuan bezala, administratuak aurretiaz jarritako berraztertze-errekurtsoa ebatzi ostean; kasu honetan, ordea, hirigintza-planeamenduko tresnak aurkartzeko egintzei buruzkoa izango da errekurtsua. Lehenago aipatutako urriaren 2ko 29/2015 Legearen 115.2 artikulua xedatutakoa hartu beharko da kontuan hemen ere, eta, beraz, aurreko atalean adierazitakoari jarraitu behar zaio.</p>	<p>Se utilizará una vez que, al igual que en el supuesto anterior, se haya resuelto el recurso de reposición que previamente ha interpuesto el administrado, si bien, en este caso, habrá de versar sobre los actos que tengan por objeto las impugnaciones de cualquier clase de instrumentos de planeamiento urbanístico. También en estos supuestos debe tenerse en cuenta lo señalado en el artículo 115.2 de la Ley 39/2015, de 2 de octubre, y se reitera, por tanto, la consideración hecha en el apartado anterior.</p>	<p>Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Salaren aurrean.</p> <p>Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala.</p>
5	<p>Eredu hau erabiliko da zergen kudeaketari eta ikuskaritzari, zein zergak edota zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrerak biltzeari lotutako gaitan, baldin eta herritarrak aurretiaz jarritako berraztertze-errekurtsoa ebazteko egintzak ez badira.</p>	<p>Este modelo se utilizará en los asuntos relacionados con la gestión, inspección y recaudación de los tributos y demás ingresos de derecho público, siempre y cuando no se trate de actos que resuelvan un recurso de reposición interpuesto previamente por el ciudadano.</p>	<p>Berraztertze-errekurtsoa.</p> <p>Recurso de Reposición.</p>

Eranskina Anexo	NOIZ APLIKATZEN DEN	CUÁNDO SE APLICA	DESKRIBAPENA DESCRIPCIÓN
6	Zergen kudeaketara lotutako egintzak aurkaratzeko erabiliko da, hain zuzen ere, Foru Ogasunak eskuordetutako eskumenen egikaritzan emandako egintzak aurkaratzeko (OHZren errolda eta Katastroa kudeatzeko egintzak).	Se utilizará frente a los actos relacionados con la gestión de tributos, dictados en el ejercicio de competencias que hayan sido delegadas por la Hacienda Foral (actos de gestión censal del IAE y actos de gestión catastral).	Aukerako berraztertze-errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa. Recurso de Reposición potestativo o Reclamación Económico-Administrativa.
7	Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44. artikuluan zerrendatutako kontratuak.	Contratos enumerados en el artº 44 de la Ley de Contratos del Sector Público.	Kontratazio arloko errekurtso berezia. Recurso especial en materia de Contratación.
8	Izapidetze-egintzen jakinarazpenetan, eta alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko epea ematen duten jakinarazpenetan jaso beharko da.	Debe incluirse en la notificación de los actos de trámite y en aquellos que confieren un plazo de alegaciones o reclamaciones.	Errekurtsorik ez. Sin recursos.

1. ERANSKINA / ANEXO 1

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, epaitegiaren aurrean; aukerako berraztertze-errekurtsoa.

Egintza honek administrazio bidea agortzen du. Bere aurka **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA** jarri ahal da Bilbon, **Administrazioarekiko auzien** dagokion **epaitegian**. **BI HILABETE**ko epea egongo da aipatutako errekurtsoa jartzeko, jakinarazpen hau jasotzen den dataren biharamunetik aurrera.

Hala ere, aukeran, eta aurreko paragrafoan jasotako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, **BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA** jarri ahal da jakinarazitako egintza eman zuen organoaren aurrean, **HILABETE**ko epean, jakinarazpen hau jasotzen den dataren biharamunetik aurrera. Berraztertze-errekurtso hori administrazio-isiltasunez ezetsia izan dela joko da, baldin eta berau jarri eta hilabete igaro ostean ez bada horren gaineko ebazpenik jakinarazi. Azken kasu horretan, lehenengo paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da sei hilabeteko epean, administrazioaren isiltasun bidezko ezespena ematen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

Errekurtsoen araubide honi dagozkion oinarri juridikoak honako hauetan daude: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. Artikuluetan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 123 eta 124. artikuluekin bat); eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.1 artikuluekin (apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan).

Egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere jarri ahal izango da, aurretik adierazitako guztiaren kalterik gabe.

Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado, con Recurso de Reposición potestativo.

Contra este acto, que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer en el plazo de **DOS MESES** contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO** ante el **Juzgado de lo Contencioso-Administrativo** de los de Bilbao que corresponda.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, podrá interponerse **RECURSO DE REPOSICIÓN** ante el mismo órgano que dictó el acto administrativo que ahora se notifica, y esto en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación. Tal recurso de reposición se entenderá desestimado por silencio administrativo si, en el transcurso de un mes desde la fecha de su interposición, no se le notifica la resolución del mismo. En este último caso, el plazo para interponer el recurso contencioso-administrativo mencionado en el párrafo primero de esta notificación será de seis meses, contándose a partir del día siguiente al que se produjo la desestimación por silencio administrativo.

Los fundamentos jurídicos de este régimen de recursos se encuentran en los artículos 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con los artículos 114, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 2 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como en el artículo 52.1 de la ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril.

Sin perjuicio de cuanto se señala anteriormente, podrá interponerse cualquier otro recurso que se estime procedente.

2. ERANSKINA / ANEXO 2**Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Salaren aurrean; aukerako berraztertze-errekurtsoa.**

Egintza honek administrazio bidea agortzen du. Bere aurka **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA** jarri ahal da Euskal Herriko Justizia Auzitegiaren **Administrazioarekiko auzien dagokion salan. BI HILABETE**ko epea egongo da aipatutako errekurtsoa jartzeko, jakinarazpen hau jasotzen den dataren biharamunetik aurrera.

Hala ere, aukeran, eta aurreko paragrafoan jasotako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, **BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA** jarri ahal da, jakinarazitako egintza eman zuen organoaren aurrean, **HILABETE**ko epean, jakinarazpen hau jasotzen den dataren biharamunetik aurrera. Berraztertze-errekurtso hori administrazio-isiltasunez ezetsia izan dela joko da, baldin eta berau jarri eta hilabete igaro ostean ez bada horren gaineko ebazpenik jakinarazi. Azken kasu horretan, lehenengo paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da sei hilabeteko epean, administrazioaren isiltasun bidezko ezespena ematen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

Errekurtsoen araubide honi dagozkion oinarri juridikoak honako hauetan daude: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. Artikuluetan (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 114, 123 eta 124. artikuluekin bat); eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.1 artikuluekin (apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan).

Egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere jarri ahal izango da, aurretik adierazitako guztiaren kalterik gabe.

Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala, con Recurso de Reposición potestativo.

Contra este acto, que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer en el plazo de **DOS MESES** contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO** ante la **Sala de lo Contencioso Administrativo** que corresponda del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, podrá interponerse **RECURSO DE REPOSICIÓN** ante el mismo órgano que dictó el acto administrativo que ahora se notifica, y esto en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación. Tal recurso de reposición se entenderá desestimado por silencio administrativo si, en el transcurso de un mes desde la fecha de su interposición, no se le notifica la resolución del mismo. En este último caso, el plazo para interponer el recurso contencioso-administrativo mencionado en el párrafo primero de esta notificación será de seis meses, contándose a partir del día siguiente al que se produjo la desestimación por silencio administrativo.

Los fundamentos jurídicos de este régimen de recursos se encuentran en los artículos 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con los artículos 114, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 2 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como en el artículo 52.1 de la ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril.

Sin perjuicio de cuanto se señala anteriormente, podrá interponerse cualquier otro recurso que se estime procedente.

3. ERANSKINA / ANEXO 3

Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, epaitegiaren aurrean.

Egintza honen aurka **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA** jarri ahal da Bilbon, **Administrazioarekiko auzien** dagokion **epaitegian**, jakinarazpen hau jasotzen den datatik **BI HILABETE**ko epean. Hala xedatzen dute Adminis-trazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.4 artikuluek. Horrek guztiak ez du eragotziko norberaren eskubideak defendatzeko egoki irizitako beste edozein errekurto jartzea, baina, edozelan ere, ezingo da beste berraztertze-errekurtsorik jarri.

Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado.

Contra este acto, se podrá interponer **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO**, ante el **Juzgado de lo Contencioso-Administrativo** de Bilbao que corresponda, en el plazo de **DOS MESES**, computados desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación, y ello conforme a lo establecido en los artículos 8 y 46.4 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y sin perjuicio de cualquier otro recurso que se estime oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos, si bien se le advierte que no podrá interponerse de nuevo recurso de reposición.

4. ERANSKINA / ANEXO 4

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Salaren aurrean.

Egintza honen aurka **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA** jarri ahal da Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, **Administrazioarekiko auzien** dagokion **salan**, jakinarazpen hau jasotzen den datatik **bi hilabeteko** epean. Hala xedatzen dute Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.4 artikuluek. Horrek guztiak ez du eragotziko norberaren eskubideak defendatzeko egoki irizitako beste edozein errekurto jartzea, baina, edozelan ere, ezingo da beste berraztertze-errekurtsorik jarri.

Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala.

Contra este acto, se podrá interponer **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO**, ante la **Sala de lo Contencioso-Administrativo** que corresponda del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de **dos meses**, computados desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación, y ello conforme a lo establecido en los artículos 10 y 46.4 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y sin perjuicio de cualquier otro recurso que se estime oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos, si bien se le advierte que no podrá interponerse de nuevo recurso de reposición.

5. ERANSKINA / ANEXO 5**Berraztertze-errekurtsoa.**

Egintza horren aurka **BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA** jarri daiteke, egintza eman zuen udal organoaren aurrean, **HILABETEKO** epean, jakinarazpen hau jasotzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Bestalde, errekurtsoa administrazio-isiltasun bidez ezetsi egin dela joko da, baldin eta hura jarri eta hiru hilabeteko epean ez bada hari buruzko ebazpenik jakinarazi; kasu horretan, **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA** jarri ahal izango da aipatuko auzibidearen Bilboko epaitegietan, Administrazioaren isiltasun bidez berraztertze-errekurtsoa ezeitsia izan zen dataren biharamunetik sei hilabeteko epean. Hala xedatzen dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 108. artikulua; Toki Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 13. artikulua eta hurrengoak; eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua. Edozelan ere, aipatutako guztiak ez du eragotziko egoki irizitako beste edozein errekurtso jartzea.

Oharra: berraztertze-errekurtsoa jartzeak ez du aurkaratutako egintzaren exekuzioa etengo.

Recurso de Reposición.

Contra el presente acto, podrá interponerse **RECURSO DE REPO-SICIÓN** ante el órgano municipal que la dictó, dentro del plazo de **UN MES**, a contar desde el siguiente día al del recibo de esta notificación, entendiéndose desestimado por silencio administrativo si transcurridos tres meses desde su interposición no se notificare su resolución, en cuyo caso, podrá interponerse **RECURSO CONTEN-CIOSO-ADMINISTRATIVO** ante los Juzgados de dicha jurisdicción de Bilbao, en el plazo de seis meses, a partir del día siguiente a aquel en que se produjo la desestimación por silencio administrativo del recurso de reposición, todo ello de conformidad con el artículo 108 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y con los artículos 13 y siguientes de la Norma Foral 9/2005 de Haciendas Locales, así como de acuerdo con lo dispuesto en el artº 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y sin perjuicio de cualquier otro recurso que se considere oportuno interponer.

Se le advierte que la interposición del recurso de reposición no suspenderá la ejecución del acto impugnado.

6. ERANSKINA / ANEXO 6**Aukerako berraztertze-errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa.**

Egintza honen aurka **BERREZARTZEKO ERREKURTSOA** jarri ahal izango da Udalean, **HILABETEKO** epean, jakinerazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita; aukeran, **ERRE-KLAMAZIO EKONOMIKO-ADMINIS-TRATIBOA** jarri ahal izango da Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administra-tiboaren aurrean, **EPE BEREAN**. Ezin izango dira errekurtso biak aldi berean jarri.

Recurso de Reposición potestativo o Reclamación Económico-Administrativa.

Contra este acto, se podrá interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN** ante el Ayuntamiento, en el plazo de **UN MES** a partir del día siguiente a la recepción de la presente, o, a su elección, **RECLAMACIÓN ECONÓ-MICO-ADMINISTRATIVA** ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Bizkaia, en el **MISMO PLAZO**, no pudiendo simultanearse ambos recursos.

7. ERANSKINA / ANEXO 7

Kontratazio arloko errekurtsio berezia.

Egintza honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; hortaz, haren kontrako **ADMINISTRAZIOA-REKIKO AUZI-ERREKURTSOA** aurkez daiteke Bilboko dagokion **Administrazioarekiko Auzien Epai-tegian**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita **BI HILABETE**ko epean.

Dena den, aukeran, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu aurretik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (9/2017 Legea, azaroaren 8koa) 44. artikuluan aurreikusitako kontratazio-gaietako errekurtsio berezia aurkeztu ahal izango da **Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan**, aurkaratutako egintzaren jakinarazpena aipatutako Lege horren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera bidaltzen denetik **hamabost egun balioduneko epean**.

Errekurtsio araubide horren oinarri juridikoak honako arau hauetan daude: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114., 123., 124. eta 24. artikuluekin eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. eta hurrengo artikuluekin bat etorritz.

Recurso especial en materia de Contratación.

Contra este acto, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer en el plazo de **DOS MESES** contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO** ante el **Juzgado de lo Contencioso-Administrativo** de los de Bilbao que corresponda.

No obstante, con carácter potestativo y con anterioridad a la interposición del Recurso Contencioso-Administrativo, podrá interponer ante el **Órgano administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Recurso Especial en materia de Contratación** previsto en el artº 44 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, en el **plazo de quince días hábiles** contados desde que se remita la notificación del acto impugnado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 153 de la citada Ley.

Los fundamentos jurídicos de este régimen de recursos se encuentran en los artículos 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con los artículos 114, 123, 124 y artículo 24 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y artículos 44 y siguientes de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

8. ERANSKINA / ANEXO 8**Errekurtsorik ez.**

Ebazpen edo erabaki hau izapidetzakoa da eta, beraz, ezin da errekurtsorik jarri bere aurka. Ordea, interesdunak erabaki horren aurkako bere jarrera agertu ahal izango du, aintzat hartua izan dadin prozedurari amaiera emango dion ebazpenean. Hala xedatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 112.1 artikulua.

Sin recursos.

Contra la presente resolución o acuerdo, por tener la consideración de acto de trámite, no cabe recurso, si bien la oposición a su contenido podrá alegarse para su consideración en la resolución que ponga fin al procedimiento, todo ello de acuerdo con el artículo 112.1 de la Ley 39/2015, de 2 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.